


Eskubideak Ditugu





**HAUEK DIRA ZURE ESKUBIDEAK. IA MUNDU
OSOKO HAURREK DITUZTEN BERBERAK.
HALA ERABAKI ZUTEN HAURREN ESKUBIDEEI
BURUZKO HITZARMENA SINATU ZUTEN
HERRIALDEEK, ETA HITZARMEN HORI BETEKO
DELA ZIURTATU BEHAR DUTE GOBERNUEK.
EZAGUTU ITZAZU, ETA ESKUBIDE HORIEI
BURUZ HITZ EGIN EZAZU ZURE FAMILIAN,
IKASTETXEAN ETA ZURE LAGUNEKIN.**

**HAURREN ESKUBIDEEN HITZARMENEN TESTUA EGOKITU
ETA HAMAR ATALETAN TALDEKATU DA, ERRAZAGO ULERTZEKO.**



Eskubideak Ditugu

Berdintasuna

4

Nortasuna

18

Osasuna

6

Haurrak lehenengoa

20

Ongizatea

8

Parte-hartzea

22

Hezkuntza

10

Familia

24

Babesa

12

Jolasa

28

1

BERDINTASUNA

**GAINERAKO HAURREN ESKUBIDE
BERBERAK DITUZU, ETA ARRETA
BEREZIA JASO BEHAR DUZU,
EZINTASUNEN BAT BADUZU.**

- **Haurra** (1. art.). Haurren Eskubideen Hitzarmenean jasotako eskubide guztiak dituzu, 18 urte bete ez badituzu.
- **Eskubide guztiak, haur guztientzat** (2.art.). Eskubide hauek guztiak izateko eskubidea, zure sexua, erlijioa, egoera ekonomikoa edota gaitasun fisikoa edo intelektuala edozein izanda ere. Estatuak hartuko du inork bazterkeriarik ez jasateko ardura.
- **Ezintasunaren integrazioa** (23. art.). Ezintasun fisiko edo intelektualen bat baldin baduzu, ahalik eta autonomiarik handiena lortzeko behar dituzun zaintza eta heziketa jasotzeko eskubidea duzu; gainerako haurrekin batera bizi izateko eta gizartean modu aktiboan sartzeko.





OSASUNA

**GAIXOTASUNEI AURREA
HARTZEKO ESKUBIDEA
DUZU, BAI ETA BEHAR
DUZUNEAN ARRETA
MEDIKOA JASOTZEKOA ERE.**

- **Osasuna eta zerbitzu medikoak** (24. art.). Behar bezala elikatzeko eskubidea, edateko ura izatekoa, kutsatu gabeko ingurumena eta ez gaixotzeko zaintzak izateko eskubidea; eta Estatuak ahal duen guztia egitekoa, zure osasunarentzako kaltegarriak diren praktika tradizionalekin amaitzeko.
- **Drogen erabilera eta trafikoa** (33. art.). Drogen legez kanpoko erabileratik babesteko eskubidea, eta drogen ekoizpenean edo trafikoan ez erabiltzekoa.



3

ONGIZATEA

**GIZARTE SEGURANTZA
ETA GARATZEKO ETA
DUINTASUNEZ BIZITZEKO
BEHARREZKO BALIABIDEAK
IZATEKO ESKUBIDEA DUZU.**

- **Bizitza eta garapen pertsonala** (6. art.). Estatuak zure bizitza eta zure garapen egokia zaintzeko eskubidea.
- **Gizarte Segurantza** (26. art.). Gizarte Segurantza izateko eskubidea.
- **Bizitza-maila** (27. art.). Arlo fisikoan, mentalean, espiritualean, moralean eta gizarte mailan hazteko beharrezko baliabideez gozatzeko eskubidea; Estatuak zure familiari laguntzeko eskubidea, zure gurasoek behar bezala artatu ezin zaituztenean.




4

HEZKUNTZA

ZURE NORTASUNA ETA
GAITASUNAK GARATZEKO ETA
BESTEEKIN BATERA BIZITZEKO
PRESTATUKO ZAITUEN
HEZKUNTZA JASOTZEKO
ESKUBIDEA DUZU.

- **Hezkuntza** (28. art.). Derrigorrezko eta doako lehen-hezkuntza izateko eskubidea eta goi mailako ikasketetara aukeraberdintasunean sartzekoa; eskolako elkarbizitza arauak zure duintasuna errespetatzeko eskubidea.
- **Hezkuntzaren helburuak:** (29. art.). Zure nortasuna eta zure gaitasunak ahalik eta gehien garatuko dituen hezkuntza jasotzeko eskubidea; eskolak Giza Eskubideen errespetuan hezteko eskubidea; ulermen, bake, tolerantzia, gizon eta emakumeen arteko berdintasun, herri eta kultura desberdinekiko errespetu eta ingurumenarekiko errespetu giroan bizitzeko prestatua izateko eskubidea.



5

BABESA


**INTIMITATERAKO ESKUBIDEA
DUZU, ZURE GORPUTZA ETA
SENTIMENDUAK KALTETUAK EZ
IZATEKO ESKUBIDEA, LANIK EZ
EGITEKOA ETA ERREKLUTATUA
ETA ESPLOTATUA EZ IZATEKOA.**

- **Bizitza pribatua** (16. art.). Zure bizitza pribatua, zure helbidea eta korrespondentzia errespetatzeko eskubidea, zure ohorea eta ospea inork ez zikintzeko eskubidea.
- **Tratu txarrak** (19. art.). Zure aitak edo amak edo zure kargua duen pertsonak zu bazterrean uztetik, tratu txarrak ematetik, esplotatzetik edo indarkeriaz tratatzetik babesteko eskubidea.
- **Haur errefuxiatuak** (22. art.). Beste herrialde batean errefuxiatu beharra baduzu, laguntza eta babes berezia izateko eskubidea; harrera-herrialdean zure eskubide guztiak mantentzekoa; zure familiarekin elkartzekoa, ahal izanez gero.



- **Ospitaleratzea** (25. art.). Osasun arazoan ondorioz, erakunde publiko batean sartu bazara zure familiako ingurutik kanpo, zure egoera aldiro aztertua izateko eskubidea duzu.
- **Lana** (32. art.). Zure osasunarentzako kaltegarriak edo arriskutsuak diren edo ongi haztea, jolastea edo ikastea galarazten dizuten lanetatik babesteko eskubidea; baimendutako adina baino lehenago lanean ez hasteko eskubidea; laneko ordutegiak eta baldintzak behar bezala arautzeko eskubidea.
- **Sexu-esplotazioa** (34. art.). Sexu-esplotazio eta gehiegikerietatik babesteko eskubidea, prostituzioa barne, eta praktika pornografikoetan erabiltzetik babestekoa.
- **Salmenta, trata eta trafikoa** (35. art.). Zu bahitzea edo saltzea galaraziko duten neurriak Estatuak hartzeko eskubidea.

- **Beste esplotazio mota batzuk** (36. art.). Esplotazio mota orotatik babestua izateko eskubidea.
- **Tortura eta askatasuna kentzea** (37. art.). Torturak, zigorrak edo tratu krudel edo umiliagarria ez jasateko eskubidea; bizi osoko kartzelara eta heriotza zigorrera ez kondenatzeko eskubidea. Espetxeratua ez izateko eskubidea, non eta beste neurririk ezin den hartu, eta, betiere, ahalik eta denborarik laburrenean. Espetxeratu beharra izanez gero, eskubidea duzu helduetatik bereizita egoteko, gizatasunez tratatua izateko, zure familiarekin harremanak izateko eta laguntza juridikoa bizkor eta egoki eskaintzeko.



- **Gatazka armatuak** (38. art.). Baimendutako adina baino lehen gatazka armatuetan zuzenean parte ez hartzeko eskubidea. Zure komunitatean gatazka armatu baten eragina egonez gero, babes berezia jasotzeko eskubidea duzu.
- **Lehengoratzea eta birgizarteratzea** (39. art.). Bazterrean utzi bazaituzte, gehiegikeriak egin badizkizute, esplotatu edo beste indarkeria moduren batzuk jasan badituzu, zu lehengoratzeko eta birgizarteratzeko tratamendu berezia ziurtatzeko eskubidea duzu.



- **Adingabeen justizia-administrazioa** (40. art.).
Duintasunez tratatua izateko eta defenditua izateko eskubidea, delitu bat egin izanaz akusatzen edo erruduntzat jotzen bazaituzte; ahal den guztietan zure prozesamendu judiziala eta instituzioetan sartzea galarazteko eskubidea duzu; berriro ere besteekin batera bizi ahal izateko laguntza jasotzeko eskubidea ere baduzu.
- **Hitzarmena hobetzen duten legeak** (41. art.).
Zure eskubideak zaintzeko Hitzarmen hau baino egokiagoa den beste edozein Lege ezartzeko eskubidea.



6

NORTASUNA

**IZENA IZATEKO ESKUBIDEA DUZU,
HERRIALDE BATEKOA IZATEKOA,
ZURE HIZKUNTZA HITZ EGITEKOA
ETA ZURE IDEIEN, SINESTEEN ETA
ERLIJIOAREN ARABERA
BIZITZEKOA.**

- **Izena eta herritartasuna** (7. art.). Jaio orduko izen bat izateko eta herrialde bateko kide izateko eskubidea.
- **Nortasuna zaintzekoa** (8. art.). Zure herritartasuna, izena eta familiako harremanak zaintzeko eskubidea; zure izena eta nortasuna baimenik gabe inork ez erabiltzeko eskubidea.
- **Pentsamendu, kontzientzia eta erlijio arloko eskubidea** (14. art.). Zure ideiei, sinesteei eta erlijioari eusteko eskubidea. Zure gurasoek zu gidatzeko eskubidea eta betebeharra dute.
- **Gutxiengoak eta herrialde indigenak** (30. art.). Gutxiengo etniko batekoa edo herrialde indigena batekoa izanez gero, zure bizitza kulturala garatzeko eskubidea, zure ohiturak garatzeko eta zure hizkuntza hitz egiteko eskubidea.




7

LEHENENGO HAURRAK

ZURE ESKUBIDEAK BERMATZEKO,
ESTATUAK AHALEGIN GUZTIAK
EGITEKO ESKUBIDEA DUZU,
BAI ETA ZURETZAT ONENA
KONTUAN IZANDA ERABAKIAK
HARTZEKOA ERE.

- **Lehenengo, haurrak** (3. art.). Zuri dagokizun gai orotan Estatuak ezer baino lehen haurren beharrak artatzeko eskubidea.
- **Betetzeko eskubideak** (4.I art.). Estatuak zure eskubideak zaintzeko eskubidea.
- **Nazioarteko lankidetzaz** (4.II art.). Estatuak beste herrialde batzuekin lankidetzan aritzeko eskubidea, herrialde horietan haurren eskubideak errespetatu daitezen.





PARTE-HARTZEA

**INFORMAZIO EGOKIA JASOTZEKO,
ZURE IRITZIA ADIERAZTEKO
ETA ZURI DAGOZKIZUN GAIETAN
IRITZI HAU KONTUAN IZATEKO
ESKUBIDEA DUZU.**

- **Iritzia** (12. art.). Zure iritzia askatasun osoz adierazteko eskubidea, eta zuri dagozkizun gai guztietan iritzi hori kontuan izateko eskubidea.
- **Adierazpen-askatasuna** (13. art.). Askatasunez adierazteko eskubidea daukazu, edozein motatako informazioa eta ideiak aurkitu, jaso eta hedatzekoa, beste pertsonen eskubideak kaltetzen ez badituzte.
- **Elkartzeko askatasuna** (15. art.). Beste hurrekin elkartu eta bilerak egiteko askatasuna.
- **Informazio egokia eskuratzea** (17. art.). Komunikabideen bidez informazioa jasotzeko eskubidea; zure ongizatea kaltetu dezakeen informaziotik zu babestekoa; eta zuretzat egokitutako liburuen eta programen ekoizpena sustatzekoa.
- **Hitzarmenaren hedapena** (42-54. art.). Estatuak Hitzarmenaren berri hurrei eta gizarteari oro har emateko eskubidea, eta Hitzarmena ezarri eta indarrean sartzeko beharrezko izapideak egitekoa.



FAMILIA

**MAITE ZAITUEN ETA
BIDERATUKO ZAITUEN
FAMILIA BAT IZATEKO
ESKUBIDEA DUZU, ETA
FAMILIA HORRENGANDIK
EZ BANATZEKO, ZURE
ONGIZATEAGATIK EZ BADA.**


- **Gurasoen zaintza eta gidaritza** (5. art.). Zure gurasoak edo legez arduratutako beste batzuk zure zaintzaz eta gidaritzaz arduratzeko eskubidea, bai eta Estatuak haiei laguntzekoa ere, zeregin horietan zailtasunak badituzte.
- **Gurasoengandik banatzea** (9. art.). Zure gurasoekin bizitzeko eskubidea, gaizki tratatzen ez bazaituzte. Zure ongizatea dela eta zure gurasoengandik banatu aurretik, zuk entzuna izateko eskubidea duzu, bai eta gurasoek ere. Guraso bietako batengandik bananduta egon behar baduzu, berarekin duzun harremanari eusteko eskubidea duzu. Gurasoetako batek zugandik banandu beharra izan badu, non dagoen jakiteko eskubidea duzu.



- **Familia bateratzea** (10. art.). Zure gurasoen herrialde berean bizi ez bazara, beraiekin ahalik eta lasterren elkartzeko eskubidea duzu.
- **Atxikipenak eta legez kanpoko lekualdatzeak** (11. art.). Estatuak beharrezko neurriak hartzeko eskubidea du, zu legez kanpo beste herrialde batera lekualdatua ez izateko eta legez kanpo atxikita ez edukitzeko.
- **Gurasoen erantzukizuna** (18. art.). Zure zaintzaz bi gurasoak arduratzearen eskubidea. Estatuak zuri arreta egokia bermatzeko eskubidea, gurasoak lanean direnean.



- **Familiako ingurua kentzea** (20. art.). Babes eta laguntza berezia izateko eskubidea, zure familiarekin ezin bazara egon aldi batean edo behin betiko.
- **Adopzioa** (21. art.). Adoptatuz gero, zu ongien artatuko zaituen familia aukeratzeko eskubidea duzu, bai eta horren ondorioz inork onurarik ez lortzekoa ere.



10

JOLASA

**JOLASTEKO DENBORA ETA
TOKI EGOKIAK IZATEKO
ESKUBIDEA DUZU, BAI ETA
JARDUERA ARTISTIKOAK ETA
KULTURALAK EGITEKOA ERE.**

- **Aisia, jolasa eta jarduera kulturalak** (31. art.).
Jolasteko eskubidea, atsedeen hartzea eta zure kirol arloko, arlo artistikoko edo kulturalako jarduerarik gogokoenak egitekoa.




Betebeharrak ditugu ere



1

BETEBEHARRA...
GURE ESKUBIDEAK
EZAGUTZEKOA





BETEBEHARRA...
GURE ESKUBIDEAK
BABESTE

2



3

BETEBEHARRA...
BESTE PERTSONEN
ESKUBIDEAK
ERRESPETATZEKO





Testua: EDEX

Marraskia eta animazioa: KAIA

Kolorea: María Terrazas eta Tote Azkona

Diseinu grafikoa: Alfredo Requejo

© Edex 2019 / edex@edex.es / www.edex.es

ISBN: 978-84-17774-23-3

Lege-gordailua: BI-1490-19

Debekatuta dago kopiatzea, osorik edo zati bat, edozein prozedura erabilita, alde zurretik argitaratzaileen idatzizko baimena lortu gabe.

Eskubideak Ditugu

Hauk dira zure eskubideak, la mundu osoko haurrek dituzten berberak. Hala erabaki zuten Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena sinatu zuten herrialdeek. Horiek errespetarazteko betebeharra dute gobernuek.

- Berdintasuna
- Osasuna
- Ongizatea
- Hezkuntza
- Babesa
- Nortasuna
- Lehenengo haurrak
- Parte-hartzea
- Familia
- Jolasa